


# EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK IV
# CINEASTAS VASCAS IV

URRIA – ABENDUA / OCTUBRE – DICIEMBRE

2024

**Antolatzailea** | Organizador

**EUSKADIKO FILMATEGIA**
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHÈQUE BASQUE

**Kolaboratzaileak** | Colaboradores

ARTIUM MUSEOA
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

TABAKALERA

**Informazio gehiago** | Más información

**www.filmoteka.eus**

# **AURKIBIDEA** / ÍNDICE


| | |
|---|---|
| **AURKEZPENA** / PRESENTACIÓN | 3 |
| **SEÑALES DE VIDA: NÉSTOR BASTERRETXEA**<br>Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña, 2014 | 5 |
| **TRATAMOS DEMASIADO BIEN A LAS MUJERES**<br>Clara Bilbao, 2024 | 6 |
| **ZARATA**<br>Tamara García Iglesias, 2023 | 7 |
| **MUGA DEITZEN DA PAUSOA**<br>Maider Oleaga, 2018 | 8 |
| **NORBERAREN GELA**<br>Ainhoa Urgoitia, Enrique Rey, 2021 | 9 |
| **EGUTEGIA /**<br>CALENDARIO | 10 |
| **CINCO LOBITOS**<br>Alauda Ruiz de Azúa, 2022 | 12 |
| **918 GAU**<br>Arantza Santesteban, 2021 | 13 |
| **LA AMA**<br>Arantza Ibarra, Luisje Moyano, 2016 | 14 |
| **BOST MINUTU**<br>Amaia Nerekan, 2021 | 15 |
| **NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA**<br>Larraitz Zuazo, 2016 | 16 |
| **CABEZA Y CORAZÓN**<br>Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea, 2021 | 17 |
| **EMANALDI BEREZIA: TASIOREN 40. URTEURRENA**<br>SESIÓN ESPECIAL: 40 AÑOS DE TASIO | 18 |


## **IKURRAK** / SÍMBOLOS

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Zuzendaritza**<br>Dirección | **Herrialdea**<br>País | **Gidoia**<br>Guion | **Muntaketa**<br>Montaje | **Aktoreak**<br>Intérpretes |
| **Urtea**<br>Año | **Ekoizpena**<br>Producción | **Argazkia**<br>Fotografía | **Musika**<br>Música | **Iraupena**<br>Duración |

# EMAKUMEEI BURUZ HITZ EGITEN DUTEN EMAKUMEAK

Honekin jada lau ziklo berezi bezain beharrezko eskaini dizkiegu euskal zinema-zuzendari emakumezkoei. Eta oraindik ere geratzen da besteren bat. Beti utzi izan da bazterrean emakumeen begirada, emakume errealizadoreen ikusmoldea, makina bat gizonen begiradaren atzean ezkutaturik. Eta ziklo honek errealitate pozgarri bat jartzen du mahai gainean: hortxe dago begirada hori, beti egon da hor. Eta bidezkoa bezain kitzikagarria da ospatzea.

Ziklo honen eraikuntza gidatu duen denbora-irizpideari jarraituz, joan den mendeko 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran jaiotako zinemagileen txanda izango da aurten. Haien errealitatea ez da aurrekoek bizi izan zutenaren bera, eta desberdinak dira haien pertzepzioa, interesak eta begiratzeko modua ere. Zenbait ezaugarrik bereizi egiten dituzte emakumeok aurrekoetatik, baina beste askok eta askok lotu egiten dituzte guztiak. Leku propio bat aldarrikatzeak batzen ditu batzuk zein besteak, eta emakumeek funtsezko eginkizuna dute arian-arian sorturiko ekosistema horretan.

Edizio hau osatzen duten fikziozko filmetan eta dokumentaletan, emakume errealizadoreek luze-zabal hitz egiten dute emakumeez, haien munduaz, beren buruaz, lankide eta adiskideez, bidea ireki zuten emakumeez eta ondoan jarraitzen dutenez ere. Bata bestearekin antz handirik ez duten hiru erretratuk moldatzen dituzte hiru figura: aurten mendeurrena duen Néstor Basterretxea *Señales de vida: Néstor Basterretxea* lanean (Gentzane Martínez de Osaba eta Alejandro García de Vicuña); Elbira Zipitria frankismo garaiko ikastolen aitzindaria (*Muga deitzen da pausoa* izeneko denboraz kanpoko elkarrizketa, Maider Oleaga); eta Eulalia Abaitua XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Bilboko argazkigintzaren aitzindaria (Ainhoa Urgoitia eta Enrique Reyren *Norberaren gela* lanean). Istorio pertsonalagoak dakarzkigute Amaia Nerekanek eta Arantza Santestebanek. Lehenbizikoak *Bost minutu* lanean aztertzen du zeinen latza den ama gazte batentzat eta semearentzat aita urruneko espetxe batean preso egotea. Bigarrenak, berriz, hausnarketa serio eta gordin bat egiten du *918 gau* lanean, eta kontatzen du zer-nolakoak izan ziren berarentzat espetxean eman zituen 918 gau haiek eta zer distantzia dagoen kartzelan sartu zen emakumearen eta presondegitik irten zenaren artean. Badira beste bi istorio kolektibo ere. Bata, Bilboko Euskalduna ontziola ahaltsua ixtea saihesteko senideekin batera orpoz orpo borrokatu ziren emakumeena (*Nosotras, mujeres de Euskalduna*, Larraitz Zuazo). Bestea saskibaloi-kantxetan, kiroldegietan, aldageletan, hoteleko geletan eta, finean, *Cabeza y corazón* (Ainhoa Andraka eta Zuri Goikoetxea) filmeko protagonistek partekatzen dituzten espazioetan gertatzen da; dokumental horrek Espainiako gurpil-aulkiko saskibaloiko emakumezkoen selekzioa du hizpide, baita Paralinpiar Jokoen azken ediziorako lortu zuten sailkapena ere. Tamara García Iglesiasen *Zarata* filmeko pertsonaiak, bestalde, esperimentazioak, dokumentalak eta fikzioak bat egiten duten eremuan mugitzen dira. Botere-harremanak; eremu profesionala eta pertsonala erabat zapuzten duten harreman toxikoak. Arantza Ibarra eta Luisje Moyano zuzendarien *La ama* filma giroturik dagoen landetxean, berriz, mundu ilun eta arriskutsuak ikusiko ditugu. Dominazioaren eta sadomasokismoaren *bondage* munduak are inguruabar ilunagoak ezkutatzen ditu. *Tratamos demasiado bien a las mujeres* filmean, Clara Bilbao zinemagileak Carmen Machi ausart askoa aurkezten digu. Makien garaian girotutako gerra-kontakizun horretan, Machik argi eta garbi dauka bera dagoela lehen tokian, baita bigarrenenean ere. Azken kontakizuna gure egunotan girotua da. *Cinco lobitos* filmarekin, Alauda Ruiz de Azúak arrakasta lortu zuen Malagako Zinema Jaialdian, eta hiru Goya lortu zituen duela pare bat urte, amatasuna, nahasmena, mina, maitasuna eta itxaropena uztartzen dituen istorio batekin.

Emakumeei buruz hitz egiten duten emakumeak. Baita gizonez ere. Bizitzaz, borrokaz, lanaz, kariñoaz, adiskidetasunaz eta amodioaz dihardutenak. Guztiaz mintzatzen diren emakumeak. Beren ahotsekin.

# MUJERES QUE HABLAN DE MUJERES

Y con esta son cuatro las ediciones de este ciclo tan especial y necesario dedicado a las directoras vascas de cine. Y todavía queda alguna más. La mirada de las mujeres, de las realizadoras, siempre ha sido hurtada, escondida detrás o entre las miradas de muchos hombres. Y este ciclo viene a poner encima de la mesa una gozosa realidad: esa mirada está ahí, siempre ha estado ahí. Y es justo y a la vez excitante celebrarlo.

Siguiendo con el criterio temporal que ha guiado la construcción de este ciclo, este año es el turno de las cineastas nacidas a finales de la década de los 70 y principios de los 80 del pasado siglo. Su realidad no es la misma que vivieron sus predecesoras, y su percepción, sus intereses, su forma de mirar, tampoco. Hay cosas que alejan a estas directoras de las que vinieron antes, pero hay también muchas que las unen a ellas. La reivindicación de un lugar propio sirve de lazo de unión entre unas y otras, y termina conformando un ecosistema donde ellas, al fin, juegan un papel fundamental.

En los documentales y las películas de ficción que componen esta edición las realizadoras hablan mucho de las mujeres, de su mundo, de ellas mismas, de sus colegas y amigas, de las que abrieron camino, de las que siguen a su lado. Tres retratos, muy diferentes entre sí, moldean las figuras de Néstor Basterretxea en *Señales de vida: Néstor Basterretxea* (cuyo centenario se cumple este año), de Gentzane Martínez de Osaba y Alejandro García de Vicuña; de Elbira Zipitria, precursora de las ikastolas durante el franquismo, en un diálogo atemporal con la directora Maider Oleaga en *Muga deitzen da pausoa*; y de Eulalia de Abaitua, pionera de la fotografía en el Bilbao de finales del siglo XIX y principios del XX, cuya semblanza trazan Ainhoa Urgoitia y Enrique Rey en *Norberaren gela*. Historias más personales son las que nos traen Amaia Nerekan, que en *Bost minutu* aborda la dura situación que supone para una joven madre y su hijo el hecho de que su padre esté preso en una cárcel lejana, y Arantza Santesteban, que en *918 gau* nos ofrece una seria y descarnada reflexión sobre lo que supusieron para ella esas 918 noches pasadas en prisión, la distancia que separa a la mujer que entró de la que salió. Hay otras dos historias colectivas: la de las mujeres que pelearon codo con codo con sus familiares para tratar de evitar el cierre de Euskalduna, el potente astillero bilbaíno, en una historia que nos acerca Larraitz Zuazo en *Nosotras, mujeres de Euskalduna*; y la otra se desarrolla en canchas de baloncesto, en polideportivos, en vestuarios, en habitaciones de hotel, los espacios donde conviven las protagonistas de *Cabeza y corazón* (Ainhoa Andraka y Zuri Goikoetxea), un documental sobre el equipo femenino español de baloncesto en silla de ruedas y su clasificación para la última edición de los Juegos Paralímpicos. Los personajes de *Zarata*, de Tamara García Iglesias, se mueven en un terreno donde confluyen la experimentación, el documental y la ficción. Relaciones de poder, relaciones tóxicas que inundan tanto el ámbito profesional como el personal. Mundos oscuros y peligrosos son los que se dan cita en la casa de campo donde se desarrolla *La ama*, de Arantza Ibarra y Luisje Moyano. El mundo del *bondage*, de la dominación y el sadomasoquismo oculta un mundo todavía más tenebroso. En *Tratamos demasiado bien a las mujeres*, Clara Bilbao nos presenta a una Carmen Machi de rompe y rasga, que tiene clarísimo que lo primero es ella, y lo segundo, también, en una historia bélica en tiempos del maquis. La última historia sucede en nuestros días. Con *Cinco lobitos*, Alauda Ruiz de Azúa triunfó en el festival de Málaga y obtuvo tres Goyas hace un par de años, en una historia de maternidad, de confusión, de dolor, de amor y de esperanza.

Mujeres que hablan de mujeres. Y de hombres. De la vida, la lucha, el trabajo, el cariño, la amistad y el amor. Mujeres que hablan de todo. Con sus propias voces.






# SEÑALES DE VIDA: NÉSTOR BASTERRETXEA

| | |
|---|---|
| **2024/10/03** | **2024/10/04** |
| ARTIUM MUSEOA **VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** |
| **19:00** | **19:00** |
| **Gentzane Martínez de Osaba** | |

| | |
|---|---|
| Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña |
| 2014 |
| Espainia / España |
| Marmoka Films. Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña |
| Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña, Jose Mari Argoitia |
| Gentzane Martínez de Osaba |
| Alejandro García de Vicuña, Iban Gaztanbide |
| Juan Carlos Pérez, Gorka Iraundegi |
| Néstor Basterretxea |
| 77’ |

**Basterretxeak, 89 urte dituela, bere azken atzerabegirakoari, osoenari, heldu dio Bilboko Arte Ederren Museoan. Horrek kontraesanak sortzen dizkio artistari eta, ondorioz, birplanteatu eta aztertu egiten ditu bere bizitza, bere obra eta artearekin duen harremana. Bidaia honetan, Basterretxearen espiritu eta lan egiteko modu berezia ezagutuko ditugu, baita XX. mendeko kulturan eta arte garaikidean izan zuen eragina ere.**

A sus 89 años, Néstor Basterretxea se enfrenta a su última y más completa retrospectiva en el Museo de Bellas Artes de Bilbao. Esto despierta contradicciones en el artista, que le hacen replantearse y analizar su propia vida, su obra y su relación con el arte. En este viaje descubriremos el singular espíritu y modo de trabajo de Basterretxea, así como su influencia en la cultura y en el arte contemporáneo del siglo XX.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**






# TRATAMOS DEMASIADO BIEN A LAS MUJERES

| 2024/10/10 | 2024/10/11 |
|---|---|
| ARTIUM MUSEOA **VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** |
| **19:00** | **19:00** |
| **Clara Bilbao** | **Clara Bilbao** |

| | |
|---|---|
| Clara Bilbao |
| 2024 |
| Espainia, Frantzia / España, Francia |
| Ficción Producciones, Noodles Production. Julio Casal, Mateo Gil, Mamen Quintas |
| Miguel Barros (eleberria/novela: Raymond Queneau) |
| Imanol Nabea |
| Ascen Marchena |
| Nacho Mastretta, Marina Sorín |
| Carmen Machi, Antonio de la Torre, Luis Tosar, Isak Férriz, Óscar Ladoire, Julián Villagrán, Diego Anido |
| 90’ |

**Remedios Buendíak bere aberria defendatzen du, eta haren alde borrokatuko da, guztien gainetik, guztiaren gainetik. 1945eko udazkeneko egun zorigaiztoko batean, ihesi zihoan maki-talde bati postetxe bat hartzea bururatu zitzaion. Remedios emaztegai-soinekoa probatzen ari zen posta-bulego hartan. Egun hartantxe erakutsi zuen noraino irits daitekeen bere balioak defendatuz. Inortxok ere ezingo du geldiarazi. Ezta errebelde-batailoi hark ere, nahiz eta fusilak kea dariela eta ukabilak altxatuta ekarri.**

Remedios Buendía defiende su patria y luchará por ella por encima de todos y de todo. Un fatídico día de otoño de 1945, un grupo de maquis a la fuga tiene la mala idea de tomar la estafeta donde Remedios se prueba su vestido de novia. Ese será el día en el que demostrará hasta dónde puede llegar defendiendo sus valores. Y nadie podrá pararla. Ni siquiera este batallón de rebeldes con fusiles humeantes y puños en alto.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**






# ZARATA

**2024/10/17**
ARTIUM MUSEOA
**VITORIA-GASTEIZ**
**19:00**
**Tamara García Iglesias**

**2024/10/18**
TABAKALERA
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
**19:00**
**Tamara García Iglesias**

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Tamara García Iglesias |
| Urtea | 2023 |
| Herrialdea | Espainia / España |
| Ekoizpena | Atekaleun. Tamara García Iglesias |
| Gidoia | Tamara García Iglesias |
| Argazkia | Tamara García Iglesias |
| Muntaia | Tamara García Iglesias |
| Musika | Santiago Villa |
| Aktoreak | Ainara Gurrutxaga, Erika Olaizola, Javier Barandiaran |
| Iraupena | 62’ |

**Nola eragiten dio bizitza pribatuak arteari? Julenek erabili egiten ditu pertsonak. Gizon batek film bat egiteko baliatzen duen boterea eta nagusitasuna. Marianek bere lagun June erabiltzen du. Adiskideak erabiltzea film bat egiteko. Pertsonak erabiltzea pelikula bat egin ahal izateko. Dirua. Agian film batek ez du zerikusirik ez artearekin, ez narrazioarekin; agian boterea erabiltzeko beste modu bat baino ez da.**

¿Cómo afecta la vida privada al arte? Julen usa a las personas. El poder y la dominación que un hombre ejerce para hacer una película. Marian usa a su amiga June. Usar a las amigas para hacer una película. Usar a las personas para poder hacer una película. El dinero. Quizás una película no tenga que ver con el arte ni con la narración, quizás es solo otra manera de ejercer poder.

Hizkuntza / Idioma
**Euskara, gaztelania / Euskera, castellano**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**






# MUGA DEITZEN DA PAUSOA

**2024/10/24**
ARTIUM MUSEOA
**VITORIA-GASTEIZ**
**19:00**

**2024/10/25**
TABAKALERA
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
**19:00**

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Maider Oleaga |
| Urtea | 2018 |
| Herrialdea | Espainia / España |
| Ekoizpena | Izar Films, Gariza Filmak. Maider Oleaga, Izaskun Arandia, Jose Luis Rubio, Lara Izagirre |
| Gidoia | Maider Oleaga |
| Argazkia | David Aguilar |
| Muntaia | Pello Gutierrez, Maider Oleaga |
| Musika | Stéphane Garin, Stephan Mathieu |
| Aktoreak | Maider Oleaga, Miren Tirapu, Anton Mendizabal, Kontzita Beitia |
| Iraupena | 80’ |

**2011n, Maider Donostiako Fermin Calbeton kaleko 26. zenbakiko bigarren solairura joan zen bizitzera; frankismo bete-betean, Elbira Zipitriak lehen euskal eskola klandestinoa ireki zuen pisura, hain zuzen ere. Zipitria politikaria, hizlaria, irakaslea eta euskararen defendatzaile sutsua izan zen, oso polemikoa, eta maitatua bezain gorrotatua. Merezi du emakume haren historia kontatzea.**

En 2011 Maider se trasladó a vivir al segundo piso del número 26 de la Calle Fermín Calbetón en San Sebastián, donde Elbira Zipitria abrió la primera escuela vasca clandestina en pleno franquismo. Política, oradora, profesora y fogosa defensora del euskera, fue muy polémica, querida y denostada a partes iguales. Una mujer cuya historia merece la pena ser contada.

Hizkuntza / Idioma
**Euskara / Euskera**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**






# NORBERAREN GELA

**2024/11/07**
ARTIUM MUSEOA
**VITORIA-GASTEIZ**
**19:00**
**Ainhoa Urgoitia**

**2024/11/08**
TABAKALERA
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
**19:00**
**Ainhoa Urgoitia**

| |
|---|
| Ainhoa Urgoitia, Enrique Rey |
| 2021 |
| Espainia / España |
| Bitart New Media, SL.<br>Ainhoa Urgoitia |
| Ainhoa Urgoitia |
| Jone Novo Olea,<br>Marta F. Pisonero |
| Bittor González |
| Nerea Alberdi |
| Maite Jiménez Ochoa de Alda, Josu Zaldibar, Jokin Aspuru, Erika Barahona, Maied Urrutia, Elssie Ansareo, José Pablo Arriaga, Nagore Legarreta, Aitziber Orkolaga |
| 64' |

**Zenbait emakume argazkilarik proiektu propio bat egiteko enkargua jasotzen dute, Eulalia Abaituaren lanaren argazki batetik abiatuta -lehenbiziko euskal emakume argazkilaritzat hartzen da Abaitua, 1900ean Bilbon ekin baitzion arte horri-. Proiektu honek ondoz ondo elkarrizketan jartzen ditu egilearen obra eta bizitza, eta erakusten du nolabait ere lotuta daudela artistaren bizipenak eta lan haietako bakoitza.**

Varias fotógrafas reciben el encargo de hacer un proyecto propio a partir de una fotografía de la obra de Eulalia de Abaitua, considerada la primera fotógrafa vasca y pionera de este arte en el Bilbao de 1900, estableciendo un diálogo con su obra y con la vida de la autora y descubriendo que ésta está ligada en cierta manera a la de cada una de ellas.

Hizkuntza / Idioma
**Euskara, gaztelania / Euskera, castellano**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**

# VITORIA-GASTEIZ

## ARTIUM MUSEOA

| | **Eguna**<br>Día | **Ordua**<br>Hora | **Bertsioa**<br>Versión | **Azpitituluak**<br>Subtítulos | **Aurkezpena**<br>Presentación |
|---|---|---|---|---|---|
| **EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK IV** / CINEASTAS VASCAS IV | | | | | |
| **SEÑALES DE VIDA: NÉSTOR BASTERRETXEA**<br>(Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña, 2014) | **2024/10/03** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Gentzane Martínez de Osaba** |
| **TRATAMOS DEMASIADO BIEN A LAS MUJERES**<br>(Clara Bilbao, 2024) | **2024/10/10** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Clara Bilbao** |
| **ZARATA**<br>(Tamara García Iglesias, 2023) | **2024/10/17** | **19:00** | **Euskara, gaztelania**<br>Euskera, castellano | **Gaztelania**<br>Castellano | **Tamara García Iglesias** |
| **MUGA DEITZEN DA PAUSOA**<br>(Maider Oleaga, 2018) | **2024/10/24** | **19:00** | **Euskara**<br>Euskera | **Gaztelania**<br>Castellano | - |
| **NORBERAREN GELA**<br>(Ainhoa Urgoitia, Enrique Rey, 2021) | **2024/11/07** | **19:00** | **Euskara, gaztelania**<br>Euskera, castellano | **Gaztelania**<br>Castellano | **Ainhoa Urgoitia** |
| **CINCO LOBITOS**<br>(Alauda Ruiz de Azúa, 2022) | **2024/11/14** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Alauda Ruiz de Azúa** |
| **918 GAU**<br>(Arantza Santesteban, 2021) | **2024/11/21** | **19:00** | **Euskara**<br>Euskera | **Gaztelania**<br>Castellano | **Arantza Santesteban** |
| **LA AMA**<br>(Arantza Ibarra, Luisje Moyano, 2016) | **2024/11/28** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Arantza Ibarra** |
| **BOST MINUTU**<br>(Amaia Nerekan, 2021) | **2024/12/05** | **19:00** | **Euskara**<br>Euskera | **Gaztelania**<br>Castellano | **Amaia Nerekan** |
| **NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA**<br>(Larraitz Zuazo, 2016) | **2024/12/12** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Larraitz Zuazo** |
| **CABEZA Y CORAZÓN**<br>(Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea, 2021) | **2024/12/19** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea** |

# DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

## TABAKALERA

| | **Eguna**<br>Día | **Ordua**<br>Hora | **Bertsioa**<br>Versión | **Azpitituluak**<br>Subtítulos | **Aurkezpena**<br>Presentación |
|---|---|---|---|---|---|
| **EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK IV** / CINEASTAS VASCAS IV | | | | | |
| **SEÑALES DE VIDA: NÉSTOR BASTERRETXEA**<br>(Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña, 2014) | **2024/10/04** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | - |
| **TRATAMOS DEMASIADO BIEN A LAS MUJERES**<br>(Clara Bilbao, 2024) | **2024/10/11** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Clara Bilbao** |
| **ZARATA**<br>(Tamara García Iglesias, 2023) | **2024/10/18** | **19:00** | **Euskara, gaztelania**<br>Euskera, castellano | **Gaztelania**<br>Castellano | **Tamara García Iglesias** |
| **MUGA DEITZEN DA PAUSOA**<br>(Maider Oleaga, 2018) | **2024/10/25** | **19:00** | **Euskara**<br>Euskera | **Gaztelania**<br>Castellano | - |
| **NORBERAREN GELA**<br>(Ainhoa Urgoitia, Enrique Rey, 2021) | **2024/11/08** | **19:00** | **Euskara, gaztelania**<br>Euskera, castellano | **Gaztelania**<br>Castellano | **Ainhoa Urgoitia** |
| **CINCO LOBITOS**<br>(Alauda Ruiz de Azúa, 2022) | **2024/11/15** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Alauda Ruiz de Azúa** |
| **918 GAU**<br>(Arantza Santesteban, 2021) | **2024/11/22** | **19:00** | **Euskara**<br>Euskera | **Gaztelania**<br>Castellano | **Arantza Santesteban** |
| **LA AMA**<br>(Arantza Ibarra, Luisje Moyano, 2016) | **2024/11/29** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Arantza Ibarra** |
| **BOST MINUTU**<br>(Amaia Nerekan, 2021) | **2024/12/06** | **19:00** | **Euskara**<br>Euskera | **Gaztelania**<br>Castellano | **Amaia Nerekan** |
| **NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA**<br>(Larraitz Zuazo, 2016) | **2024/12/13** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Larraitz Zuazo** |
| **CABEZA Y CORAZÓN**<br>(Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea, 2021) | **2024/12/20** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | - | **Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea** |






# CINCO LOBITOS

**2024/11/14**
ARTIUM MUSEOA
**VITORIA-GASTEIZ**
**19:00**
**Alauda Ruiz de Azúa**

**2024/11/15**
TABAKALERA
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
**19:00**
**Alauda Ruiz de Azúa**

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Alauda Ruiz de Azúa |
| Urtea | 2022 |
| Herrialdea | Espainia / España |
| Ekoizpena | Encanta Films, Sayaka Producciones, BuenaPinta Media. Manu Calvo, Marisa Fernández Armenteros, Nahikari Ipiña |
| Gidoia | Alauda Ruiz de Azúa |
| Argazkia | Jon D. Domínguez |
| Muntaketa | Andrés Gil |
| Musika | Aránzazu Calleja |
| Aktoreak | Laia Costa, Susi Sánchez, Ramón Barea, Mikel Bustamante, José Ramón Soroiz |
| Iraupena | 104' |

**Amaia erditu berri da, eta jabetu da ez dakiela nola izan ama. Bikotekidea falta du, lan-kontuengatik joana baita aste batzuetarako; gurasoen etxera itzultzea erabakiko du, Euskal Herriko kostaldeko herri polit batera. Hala, haurra zaintzeko ardura partekatuko du. Amaiak ez daki, ordea, orain ama izanagatik ere sekula ez diola utziko alaba izateari.**

Amaia acaba de ser madre y se da cuenta de que no sabe muy bien cómo serlo. Al ausentarse su pareja por trabajo unas semanas, decide volver a casa de sus padres, en un bonito pueblo costero del País Vasco, y así compartir la responsabilidad de cuidar a su bebé. Lo que no sabe Amaia es que, aunque ahora sea madre, no dejará de ser hija.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**





# 918 GAU

| | |
|---|---|
| **2024/11/21** | **2024/11/22** |
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** |
| **19:00** | **19:00** |
| **Arantza Santesteban** | **Arantza Santesteban** |

- Arantza Santesteban
- 2021
- Espainia / España
- Txintxua Films, Hiruki Filmak. Marian Fernández Pascal, Marina Lameiro
- Arantza Santesteban
- Maddi Barber
- Mariona Solé
- Arantza Santesteban, Mirari Echávarri, Mercé Salom, Manon Praliné, Maryann Peony
- 65’

**2007ko urriaren 4ean, Arantza, filmaren zuzendaria, atxilotu eta espetxeratu zuten. Zenbait oroitzapen gordetzen ditu egun haietatik: patioko joan-etorri amaigabeak, igeriketa-lehiaketak, Rasharen bizipen latzak kartzelan… 918 gau giltzapetuta eman eta gero, Arantza aske geratu zen. Handik aurrera, grabagailu batean jaso zituen bere oroitzapenak eta zalantzak, eta filmean zehar azalduko zaizkigu, memoria zatikatu baten eran.**

El 4 de octubre de 2007, Arantza, directora de la película, es detenida y llevada a prisión. De aquellos días conserva algunos recuerdos: las interminables vueltas por el patio, los campeonatos de natación, el periplo carcelario de Rasha… Tras pasar 918 noches encerrada, Arantza queda en libertad. A partir de ese momento, registra en una grabadora sus recueros y sus dudas, que se van desplegando a lo largo de la película a modo de una memoria fragmentada.

Hizkuntza / Idioma
**Euskara / Euskera**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**






# LA AMA

| | |
|---|---|
| **2024/11/28** | **2024/11/29** |
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** |
| **19:00** | **19:00** |
| **Arantza Ibarra** | **Arantza Ibarra** |

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Arantza Ibarra, Luisje Moyano |
| Urtea | 2016 |
| Herrialdea | Espainia / España |
| Ekoizpena | El Fantasma de la Libertad Producciones. Luisje Moyano, Milagros Mendizábal |
| Gidoia | Arantza Ibarra |
| Argazkia | Roberto San Eugenio |
| Muntaia | Eder Reguera |
| Aktoreak | Luisa Torregrosa, Cristina Mediero, Gregor Acuña-Pohl, Antonio Mayans, Velilla Valbuena, Ignacio Mateos |
| Iraupena | 89’ |

**Christina kazetaria da, eta Tony boxeolariaren arrastoari jarraika ari da, zeina karreraren gailurrean erretiratu baitzen. Boxeolaria kortijo isolatu batera joaten da ezkutuan eta, han, etxekoandrearen praktika sadomasokistetan murgilduko dira, larruaren eta zartailuen atzean ezkutatzen diren botere-joko korapilatsuetan. Inondik ere, Christinak susmatzen zuen baino misterio askoz ere ilunagoan.**

Christina es una periodista que sigue la pista de Tony, un boxeador retirado en la cumbre de su carrera. En el aislado cortijo al que éste acude a escondidas se verán envueltos en las prácticas sadomasoquistas de la señora de la casa, en los intrincados juegos de poder que se ocultan tras el cuero y las fustas y en un misterio mucho más oscuro de lo que ella sospechaba.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**





# BOST MINUTU

| 2024/12/05 | 2024/12/06 |
|---|---|
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** |
| **19:00** | **19:00** |
| **Amaia Nerekan** | **Amaia Nerekan** |

| | |
|---|---|
| Amaia Nerekan |
| 2021 |
| Espainia / España |
| Marmoka Films. Gentzane Martínez de Osaba, Alejandro García de Vicuña |
| Amaia Nerekan |
| Amaia Nerekan |
| Usue Arrieta |
| Paula Olaz |
| 61’ |

Aiurrek sei urte bete berriak ditu. Gauero-gauero egunak kontatzen dituzte amak eta biek, sukaldeko egutegiari begira, zenbat egun falta ote diren aita Endika etxera bueltatzeko. Endikak hamabost urte daramatza espetxe batean, etxetik 540 kilometrora. Aiurrek bi modu izan ditu aitarekin komunikatzeko: hilean behin bisita bat eginda, eta bost minutuko telefono-deien bidez.

Aiur acaba de cumplir seis años. Cada noche, junto a su madre, cuenta, mirando al calendario de la cocina, cuántos días faltan para que su padre, Endika, vuelva a casa. Endika lleva quince años en una prisión, a 540 km de su casa. Aiur solo ha podido comunicarse con él de dos maneras: una visita mensual y llamadas de teléfono de cinco minutos.

Hizkuntza / Idioma
**Euskara / Euskera**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**







# NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA

| | |
|---|---|
| **2024/12/12**<br>ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ**<br>**19:00**<br>**Larraitz Zuazo** | **2024/12/13**<br>TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**<br>**19:00**<br>**Larraitz Zuazo** |

- Larraitz Zuazo
- 2016
- Espainia / España
- Zinebi. Vanesa Fernández Guerra, Patxi Azpillaga
- Larraitz Zuazo, Araitz Rodríguez
- Juantxu Beloki
- Larraitz Zuazo, Alex Argoitia
- Eva Cerrato, Loli García, Begoña Gutiérrez, Andrea Gutiérrez, Maribi Marañón, Yoli Rodríguez, Eli Zugaza
- 67’

**Araitz Euskalduna ontzioletako langile baten alaba da, eta buru-belarri ekingo dio Bilbon 1983 eta 1988 bitartean izaniko borrokaren memoria berreraikitzeari -horri esker lortu zuten, hain justu, ontziolak ez ixtea-. Horretarako, amaren ikuspegia eta oroitzapenak baliatzen ditu, bai eta Euskaldunako Emakumeen Asanbladan parte hartu zuten beste emakume batzuenak ere. Asanblada 1984an sortu zen, greban zeuden langileen alde.**

Araitz, hija de un obrero de los Astilleros de Euskalduna, se embarca en la tarea de reconstruir la memoria de la lucha que se desarrolló en Bilbao entre 1983 y 1988 y con la que no se evitó el cierre de los astilleros. Lo hace a través de la visión y los recuerdos de su madre y de otras mujeres que participaron en la Asamblea de Mujeres de Euskalduna (AME) constituida en 1984 en apoyo a los obreros en huelga.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**






# CABEZA Y CORAZÓN

| 2024/12/19 | 2024/12/20 |
|---|---|
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** |
| **19:00** | **19:00** |
| **Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea** | **Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea** |

Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea

2021

Espainia / España

Doxa Producciones. Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea, Cristina Hergueta

Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea

Ainhoa Andraka

Ainhoa Andraka

Jon Aguirrezabalaga, Oier Aldekoa

Vicky Pérez, Lucía Soria, Vicky Alonso, Sonia Ruiz, Judith Núñez, Almudena Montiel, Abraham Carrión, Agurtzane Egiluz, Lourdes Ortega, Sara Revuelta, Veva Tapia, Sira Moros, Andrea Santana, Beatriz Zudaire, Michel Navarro

98'

**Olinpiar Jokoetan parte hartzeko lortutako sailkapen bakar hartatik (92ko Bartzelonako Jokoak) 24 urte igaro ondoren, baliteke Espainiako gurpil-aulkiko saskibaloiko emakumezkoen selekzioa berriro ere sailkatzea Paralinpiar Jokoetarako. Nahiz eta beste herrialdeetako selekzioek baino bitarteko gutxiago izan, taldea bidea egiten ari da, iragarpen guztiak aurka izanagatik ere. Beste jokalari baten begirada hutsa izan zitekeen ikuspegiaren bidez, modu intimoan erretratatzen dira kirolariok, zeinak fisikoki zein psikologikoki hazten baitira, harik eta Tokioko 2020ko Jokoetarako sailkapen historikoa lortu arte.**

Veinticuatro años después de su única clasificación para unas olimpiadas (en Barcelona-92), la selección española femenina de baloncesto en silla de ruedas tiene la oportunidad de clasificarse para unos nuevos Juegos Paralímpicos. El equipo, a pesar de contar con menos medios que las selecciones de otros países, va abriéndose camino contra todo pronóstico. Una mirada que podría ser la de una jugadora más retrata de manera íntima a unas deportistas que crecen física y psicológicamente a lo largo de un ciclo olímpico hasta conseguir la histórica clasificación para Tokio 2020.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**

# EMANALDI BEREZIA
## *TASIO*REN 40. URTEURRENA

# SESIÓN ESPECIAL
## 40 AÑOS DE *TASIO*




# TASIO
## + NAFARRAKO IKAZKINAK
CARBONEROS DE NAVARRA

**2024/10/11 · 2024/10/18**
FILMOTECA DE NAVARRA/NAFARROAKO FILMATEGIA
**IRUÑEA-PAMPLONA**
**19:00** **17:00**

**2024/11/09**
GOLEM ALHÓNDIGA
**BILBAO**
**18:00**
***NAFARRAKO IKAZKINAK***

**2024/11/15**
ARRIAGA ANTZOKIA
**BILBAO**
**19:30**
***TASIO***

# TASIO

- Montxo Armendariz
- 1984
- Espainia / España
- Elías Querejeta Producciones Cinematográficas
- Montxo Armendáriz
- José Luis Alcaine
- Pablo G. del Amo
- Fermín Gurbindo
- Patxi Bisquert, Amaia Lasa, Nacho Martínez, José María Asín, Francisco Sagarzazu, Enrique Goicoechea, Elena Uriz, Miguel Ángel Rellán
- 96’

Tasioren bizitza irudikatzen du filmak. Lokiz mendilerroan (Nafarroa) dagoen herri txiki bateko mutikoa da; zortzi urterekin hasten da mendiko lanetan, eta 14 dituenerako ikazkina da dagoeneko, aita bezala. Bizilagun askok lan finkoaren bila hirira alde egin arren, Tasiok nahiago du bere askatasunari eutsi eta mendian bizi. Anastasio Ochoa Ruiz (*Tasio*) ikazkin eta isileko ehiztariaren bizitza du oinarri filmak; gizon hura Zuñigan jaio zen 1916an, eta 1989an hil zen Valderrota mendian.

Euskadiko Filmategiak *Tasio* filma zaharberritu du Boloniako Cinetecaren baitako L’immagine Ritrovata laborategietan, 2023an. 40. urteurrenean, pelikulak Cannesko Zinemaldian, Boloniako Il Cinema Ritrovaton, Donostia Zinemaldian eta Lyongo Lumière Zinemaldian parte hartu du.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**

**IRUÑEA-PAMPLONA**
**Antolatzailea** | Organiza
Filmoteca de Navarra | Nafarroako Filmoteka

**BILBAO**
**Antolatzailea** | Organiza
ZINEBI 66
International Festival of Documentary and Short Film of Bilbao
Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia
Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao



**2024/12/15**
TABAKALERA
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
**19:00**

**2024/12/22**
ARTIUM MUSEOA
**VITORIA-GASTEIZ**
**19:00**

# NAFARRAKO IKAZKINAK
## CARBONEROS DE NAVARRA

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Montxo Armendariz |
| Urtea | 1981 |
| Gidoia | Montxo Armendáriz |
| Argazkia | Xabi Otero |
| Muntaia | Fernando Larruquert |
| Musika | Esteban Elizondo |
| Aktoreak | Urbano Egozkue, Mariano Errazkin, Narciso Galdeano, Francisco Idiazabal, Cruz Linzoain, José Angel Linzoain, Tasio Otxoa, Ceferina Toral, Juan José Toral, Tomás Torral, José Zenoz |
| Iraupena | 27’ |

**1980an, Montxo Armendárizek egur-ikatza eskuz egiten zuten azken ikazkinen erretratu korala filmatu zuen Nafarroako mendietan. Euskadiko Filmategiak zaharberritutako filma.**

En 1980 Montxo Armendáriz filmó, en los montes de Navarra, un retrato coral de los últimos carboneros que elaboraban carbón vegetal artesanalmente. Película restaurada por la Filmoteca Vasca.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania - Castellano / Euskara - Euskera**

La película retrata la vida de Tasio, un niño que vive en un pequeño pueblo de la sierra de Lokiz (Navarra) que a los ocho años empieza a trabajar en el monte y a los 14 ya es carbonero, como su padre. A pesar de que muchos vecinos emigran a la ciudad para tener un trabajo fijo, Tasio prefiere mantener su libertad y vivir en la montaña. La cinta está basada en la vida de Anastasio Ochoa Ruiz (*Tasio*), carbonero y cazador furtivo que nació en Zúñiga en 1916 y murió en 1989 en el monte Valderrota.

*Tasio* ha sido restaurada por la Filmoteca Vasca en los laboratorios L’immagine Ritrovata, dependientes de la Cinemateca de Bolonia, en 2023. En su 40 aniversario la película ha participado en el Festival de Cannes, Il Cinema Ritrovato de Bolonia, el Festival de San Sebastián y el Festival Lumière de Lyon.

Informazio gehiago | Más información | More information
www.filmoteka.eus



# ZINEMA ETA ZIENTZIA
# CINE Y CIENCIA
# CINEMA AND SCIENCE

**2025**

**URTARRILA-MARTXOA**
ENERO-MARZO
JANUARY-MARCH

**Antolatzaileak** | Organizadores | Organizers

**EUSKADIKO FILMATEGIA**
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHÈQUE BASQUE

Donostia International Physics Center

SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival